

Enpresa Zientzien Fakultateko Campus berria

2009/02/09

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultatea eta MIK Zentru Teknologikoa, Oñatiko (Gipuzkoa) Hiri Unibertsitario eta Teknologikoak egingo den eraikuntzan kokatuko dira.

Eraikin honek hiru esparru hartuko ditu bere baitan: alde batetik, enpresa kudeaketari dagokion formakuntza, europar esparrura egokitutako hiru titulaziorekin eta Doktoradutzararte; Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Gradua, Nazioarteko Kudeaketan Idazkaritza Gradua eta Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua.

Bestalde, formakuntza iraukorra eta graduondoak, Master programa eta egun lanean dauden zuzendariari beraien etengabeko garapen profesionalerako programekin.

Eta ikerketaren arloa, MIK proiektu berria garatzeko tokiarekin. Proiektu berri hau, fakultateko ikerketa unitatean dauden gaitasunak eta egun arte MIKek garatu duen proiektuaren batura irzango dira. Zentru berri honen misioa, kudeaketa arloan maila goreneko ikerketa egitea da eta bi helburu ditu: emaitzak enpresa eta gizarteari zabaltzea eta kudeaketa aurreratuan ezagutza berriak garatzea.

